



Zapatería, 81, bajo 01001 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 148 367 Fax 945 234 864
alava@cgtrabajosocial.es www.cgtrabajosocial.com/araba

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO JAKINARAZPENA.

Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak, gizarte mailako esku-hartzerako profesionalak garen heinean, komunikabideetako eguneroko berrien argitan, Euskadiko herritar guztien eskubideak mehatxupean daudenaren kezka daukagu. Hori horrela, ondokoa adierazi nahi dugu:

Gure lana zenbait balore zatiezin eta unibertsaletan dagoela oinarritua, duintasuna, askatasuna, gizarte-justizia, bakea eta berdintasunean hain zuzen ere, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotzen duen moduan, gure ogibidearen printzipio orokorrak DUINTASUNA, ASKATASUNA eta BERDINTASUNA direla. Gizaki guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, xehetasun eta berezitasunekin bat datozenak.

Horregatik eta gure gizarte-babeserako sistema egunero zalantzan jartzen delako, gure kezka adierazi nahi dugu.

Sistema hau orain dela 25 urte baino gehiago hasi egin zen profesional, politikari, elkarte eta erakundeen arteko lana, eztabaida, eta adostasunaren ondorio dugu. Hobetzen eta garatzen joan da eta oraindik bide luzea du egiteke. Kohesioa ahalbidetu eta gizarte-haustura ekiditen du, baita sektore ahulen eta pribilegiatuen arteko bretxa estutzen laguntzen digu.

Euskadin egoera ahul eta larrian dauden milaka herritar laguntza hauei esker bizi dira (emakumeak, adinekoak, etorkinak, denbora luzean langabe egon direnak ...). Gaur egun, gure artean bizi diren milaka umek, Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta Larritasunerako Laguntzei esker oinarrizko eskubideak bermatuta dauzkate.

Babes-sistemaren aurrerapenaren aldekoak gara, dagokion kudeaketaren hobekuntzaren bidez. Pertsonen alde eta pertsonekin lan egiten dugu, horregatik kudeaketa eraginkorra aldarrikatzen dugu eta batez ere bihozberagoa.

Pertsonekin eta pertsonen alde berme osoarekin lan egin nahi dugu. Murrizketa ugari martxan jarri ondoren karitate eta benefizentziako eragile bihurtzen gaituzte; hori atzera pausu nabaria da, eta ez dugu onartuko.

Giza eskubideak, gizartearen eskubideak, existitu, existitzen dira, babestu egiten gaituzte eta bete egin behar dira, ez lukete kotizazio edo negoziaketan menpe egon beharko, eskubideak ez direlako negoziatzen.

GIZA ESKUBIDEAK, ATZERA PAUSORIK EZ!

**Adierazitakoagatik, Azaroaren 6an Korreoseko plazan
kontzentrazioa egingo dugu. 19etatik 19:30etara.**

Kontzentrazioan parte hartzera gonbidapena luzatzen diegu: gizarte langile guztiei, Hirugarren Sektoreko elkarte eta kolektiboak, zerbitzuetako erabiltzaileei eta gure komunitatean gizarte justuagoa eta solidarioaren alde bereizketarik gabe apustu egiten duten pertsona guztiei.